

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko azaroaren 20a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Sara, Azkaine, Etxalar eta Berako herriek kultur hamabortzaldia prestatu dute.

Dolores Ullate • «Senidetzeek ez dute funtzionatu».

Artea eta

txotxongiloak



• MIKEL SAIZ

Barañainen egiten ari den IV. Txotxongilo Jaialdian ikastetxeetako haurrak dira protagonista, egitarauan agertzen diren emanaldiez gain, artea eta txotxongiloen antzerkia uztartuz, Picassoren lanak bildu dituen museo bilakatu da kultura etxea egunotan.

Bera • Kultur zirimolan sarturik

Sara, Azkaine, Etxalar eta Beran kultur hamabortzaldia prestatu dute

Bertze urte batez, Azkaine, Sara, Etxalar eta Berako lau elkarte bateratu dire kultur aldia prestatzeko. Bertzeak bertze, antzerkia, solasaldiak, zinema, musika eta ziber kafea izanen dira aukeran.



Antolatzaileak pozik daude prestatu duten hamabortzaldi kulturalarekin.

• BOB EDME

Azkaineko Altxa Lilik, Etxalarko Altxatak, Berako Gure Txokoak eta Sarako Gaztetxeak elkarrekin prestatu dute aurten kultur Zirimolan hamabortzaldia. Antzinako urteetan hilabetea izan bada ere, aurten hamabortzaldia izatera igaro da.

Bihar emanen zaie hasiera ekitaldiei. Asteburuan Sarak Euskal Antzerki Talde Amateurren Topaketa aterbetuko du, eta orotara 5 antzezlan eta 2 mintzaldi eskainiko dira bi egunetan. Bihar, larunbata, Sarako Omordian, goizeko 11:00etan, Jean Haritxelhar euskaltzainburuak topaketaren sarrera hitzaldia eskainiko du. Antonio Maria Labaien omenez eginen da topaketa, eta lehenbiziko antzezlan *Petrikillo* izanen da, bihar goizean. Eguerdiko 13:00etan, kafe antzerkia ikusi ahal izanen da, Goizeko Izarra taldearen eskutik. Arratsaldean, La-

baienen sendiari oroigarria eskainiko zaio, eta mahai-inguruan 50eko eta 60ko hamarkadetak antzerki pizkondeaz ariko dira Zubikarai, Moraiz, Beobide, Landart eta Irigarai. Moderatzaile lanetan Patri Urkizu ariko da. Mintzaldiaren ondotik, Ereintza taldeak *Urkiola* lana eskainiko du, eta 21:00etan Kalakariak taldeak *Luma beroak* lana. Igandean, berri, euskal antzerkiaren egoeraz eta norabideez ariko dira Irigoien, Aranburu, Mendiguren, Heguy eta Irigarai, Estitxu Arozenaren gidaritzapean. Eguerdian, Ekekei taldeak *Hiltegia* kale ikuskizuna eskainiko du, eta arratsaldean Xirristi Mirrixti taldeak *Beherearta* antzezlan taularatuko du. Topa-

ketari akabera emateko, *Lumaren musika* kantu saioa izanen da 18:00etan.

Hurrengo ortziralean, hilak 27, grafologiaz mintzatuko da Irune Ibarra Etxalarren. Biharamunean, Sarako Omordian, Euskal Herriko zinema zuzendariaren 16 film labor eskainiko dira.

Abenduaren 1ean Azkaineraino ailegatuko da Zirimola. Pello Zubiria eta Joxemari Ostolaza *Argita*-ko kideek teknologia berriak izanen dituzte mintzagai. Aste horretako ortzegunetan, hilaren 3a, Berako Gure Txokoak elkartean herri telebistez ariko dira Elebista, Ttipi-ttapa Telebista eta Oarso Telebistako kideak. Biharamunean, Beran bertan, hiru ostaturik

bertze hainbertze kontzertu hartuko dituzte. 21:00etan Bidaxkan hasiko dira emanaldiak, 22:00etan Zizka ostatuan Zaund txalaparta eta tekno ikuskizuna eskainiko dute, eta 23:00tan Akauzate taldea ariko da Pui ostatuan. Sarako Banbino DJa ariko da musika paratzen.

Abenduaren 5ean bertso eta txiste-afaria izanen da Azkainen, Orioko txiste kontalariekin eta lau bertsolari gazterekin: Amets Arzallus, Mirentxu Artetxe, Xumai Murua eta Eneritz Zabaleta. Abenduaren 6an, Saran, ziber kafea antolatu dute kultur hamabortzaldiari akabera emateko.

→ Jon Abril

Bortziriak

'Bai euskarari' kanpainaren aldeko ekitaldia Lesakan

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEAREN Kontseiluaren *Bai euskarari* kanpaina bultzatzeko asmoz, talde zabal bat ari da lanean Bortzirietan. Bertan biltzen dira, euskalgintzako talde eta erakundeak ez ezik, bestelako elkarte, talde zein herritarrak ere. Gai-nontzeko herrietan bezala, batzordearen helburu nagusia euskararen normalizaziorako beharrezkoa den akordio sozial zabal bultzatzea da. «Gure hizkuntzaren normalizaziorako gizarte osoaren parte-hartzea ezinbestekoa dela garbi adierazi behar da», diote Kontseilukoek.

Kontseiluaren XXI *mendeko akordioa: Bai euskarari* kanpaina bultzatzeko, jai giroko ekitaldia antolatu du aipatu batzordeak, gaur, Lesakan. Arratseko 18:00etan plazan trikitilari eta bertsolariak izanen dira. Ondoren, sokatira apustua izanen da, eta, festarekin jarraitzeko, sardin zaharrak, gaztainak eta sagardoa eskainiko zaizkie bertara biltzen diren guztiei.

Lesakan eta, oro har, Bortzirietan Kontseiluaren kanpainaren inguruko lanak oso martxa onean ari dira egiten, eta gaurko jaialdia oso aukera aproposo izanen da bertako biztanleek ere «bai euskarari» ozenki esateko.

→ Jon Abril

metropoli forala

FELIPE RIUS



Kanpaneroa esaten diote denek. Urteak daramatza elizako dorrean eta ez dirudi jaisteko asmorik duenik. Lantegiko arazoak zirela eta, aspaldian igo zen hara beste lagun batzuekin, pankarta paratu zuten eta hilabete pare batez eutsi zioten beren errebindikazioari. Azkenean, nagusiek amore eman zuten, langile guztiak itzul zitezkeen lanera eta beren eskubideak errespetatuko zizkieten. Denen harridurarako, gero Kanpaneroa izanen zenak ezetz esan zuten, ez zuela arranoen ikuspegia galdu nahi -uso zikinena izanen zela erantzun zioten batzuek- eta behean baino askoz hobeki bizi zela dorre hartan, deustaz arduratu gabe, kaleetan dabilzanez begira. Lagunak jaitsi eta fabrikara bueltatu zirenean orrialde asko bete ziren hiriko egunkarietan Kanpaneroaren erabakia zela eta. Alkateak udaltzainak bidali zituen, gobernadoreak bere polizia, baina ez zu-

Kanpaneroa

ten lortu gizona bere txokotik botatzea. Hurbiltzen zizaitzkie bakoitzean bere burua botako zuela oihukatzen zuten, eta, jakina, inor ez zen harrapatzeri ausartzen. Gainera, kalterik egiten ez duten zoro gehienen antzera, jendearen begikotasuna bereganatu zuten. Askok agurtu egiten dute egunero dorrearen azpitik pasatzean, hi, Kanpanero sudur bero, zer moduzko eguraldia zegok hor goian. «Local hero» ere deitu izan zuten kronikaren batean. Hasierako ohiturei jarraikiz, pankarta bat jartzen du astero dorreko kanpaiaren ondoan, baina hasieran ez bezala, errebindikapena aldatu egiten da: baleak, prostituten eskubideak, alferren defentsa, arratoien bizitzaren aldeko mezuak edo kotxeen aurkako leloak. *Aupa Saramago!* zioen pankarta bat ere jarri zuten duela gutxi. Inork ez daki nondik ateratzen dituen jakiak, arropa garbia, jendeari begiratzeaz aspertzen denean irakurtzen dituen li-

buru eta egunkari guztiak, edo bere testu harrigarriak pintatzeko erabiltzen dituen espraiak. Kanpaneroaren aldeko koordinadora bat sortu dela diote batzuek, goizaldean izugarriko mugimendua egoten dela elizaren aurrean, baina agintariak ezin izan dute deus aurkitu. Urte hauetan goltik ikusi dituen gauzetan oinarriturik, Soziologia tratatu bat idazten ari dela ere esan didate. Lehen udal plazan argazkiak egiten zituzten turista guztiak dorrearen inguruetara joaten dira orain eta objektibo egokia ez badute arazo franko izaten dute argazkian haiek behean eta Kanpaneroa goian enkuadratzeko. Udal talde batek eliza, Kanpaneroa barne, interes kulturalerako ondasuna deklaratzeko eskatu du. Nahi gabe, hiriaren sinbolo bilakatu da hogeita batgarren mendeko aszeta hiritar hau, eta ni beldur naiz dorretik desagertzen denean hondamendi ikaragarri baten abisua ez ote den izanen.

Sakana • Hainbat ekitaldi asteburuan

HAINBAT EKITALDITAN PARTE hartzeko aukera izanen da asteburuan Sakanan. Bi izanen dira asteburoko aldarrikapen nagusiak. Bate-tik, *Egingo dugu!* leloko proiektu berriaren aldeko ekitaldiak egingen dira eskualdeko bi herritan, eta bestetik, Amnistiaren Aldeko Batzordeek bi manifestazioarako deia egin dute.

Proiektu berriaren aldeko ekitaldiak gaur gauean hasiko dira Etxarri-Aranazko Kultura Etxean. Gazte Asanbladak Iheitzta taldearen kontzertua antolatu du. Dena den, ez da hori *Egingo dugu!* leloarekin eskualdean egingo den ekintza bakarra. Hain zuzen, Lizarragan San Klemente jaiak direla-eta, bertako jendeak herri afaria antolatu du biharko. Afaria 22:00etan izango da, ostatuan.

Astebururako beste ekitaldia AABek manifestazioak dira. Bihar 18:30etan Lakuntzako plazan omenaldia eta manifestazioa egingen da. Mikel Arregi eta Roberto Martinez gogoratuko dira. Mikel Arregi 1979an hil zuen Guardia Zibilak, tiroz, Etxarri jarritako kontrol batean. Arregi Lakuntzako zinegotzia zen. Roberto Martinez errefuxiatua, berriz, duela lau urte hil zen Iparraldean, auto istripu batean. Beste manifestazioa Altsasun egingen da etzi arratsaldean. Herriko plazatik abiatuko da 20:00etan, *Preso eta errefuxiatuak etxera, amnistia leloarekin.*

→ Amaia Mundiñano


Lizarra • Trenbidean zehar txirrindulaz

Murietatik Arabarainoko trenbidea bide berde

**1967an Lizarran
desagertutako
trenaren ibilbidea
baliatuz, bizikletaz,
zaldiz eta oinez ibili
ahal izateko bide
berdea zabalduko da
aurki.**

EGA IBAIAK ZEHARKATZEN DUEN hiriko biztanle anitzek gogoa du urteetan Lizarra eta Gasteiz elkartu zituen trenaren hotsa. Vasco-navarra trenak Lizarratik Arabara zihoan bidea egingen zuen. Desagertu zenetik 31 urte pasatu badira ere, haren irudiak bizirik dirau Lizarrako herritar askorengan. Halaber, ibilbidearen lekuko izan ziren arrasto gutxi batzuk gorde dira. Esaterako, trena gelditzen zen herri bakoitzean geltokia izan zenaren eraikinek zutik diraute. Era berean, trenaren ibilbidearen zati batzuk egoera onean daude, eta, gaur egun oraindik ibilbide bezala erabiltzen dira. Haatik, bertze zati asko desagertzeaz daude. Gauzak horrela, Lizarraldeko Turismo Partzuergoak ibilbidea berreskuratzeko eta egokitzeko lehen neurriak hartu ditu jadanik.

Aurreneko asmoa ibilbide osoa egokitzea bazen ere —Lizarratik Arabako mugaraino—, hainbat arazo sortu dira, eta ez da bide guztia moldatuko. Hala, bidea Murietatik herriari hasi eta handik hamabi kilometrorra bukatuko da,



Lizarratik Gasteizera zihoan azken trena Lizarrako tren geltokian 1967aren abenduan. • JOSE L. LARRION

Arabako mugan, Zuñiga herrian, hain zuzen ere.

Fernando Ederra partzuergoko kudeatzailearen hitzetan, Lizarratik Murietaraino doan bideak ezin izan da atondu. Izan ere, Zubielki, Arbeizan eta Zuñigan lur-sail pribatuak daude. «Trena desagertu zenean, hiru herri horietan publikoak ziren hainbat lur esku pribatuera pasatu ziren, eta horiek berreskuratzea zaila da». Beraz, bide berdea deituko duten bidearen tarte bat Lizarratik Zubielkiraino joanen da, eta, bertzea, Murietatik Zuñigaraino. Behin Araban, bidaiariak jarraitu ahal izanen du bidea, Arabako lurraldean ere, Gasteiztik Arlabango mendikateraino doan ibilbi-

dea, 16 kilometrotan hain zuzen, egokitua dagoelako. Trenbidea egokitzeko lanak urtea amaitu baino lehen hasiko dira, eta guztira 14 milioi pezetako aurrekontua dute (560.000 libera).

Dirudienek, konpontzeko arazo gehien emanen duen ibilbide tarte Azedoko tunela da. Fernando Ederrak esan duenez, tunelaren egitura ongi dagoen arren, luraren egoera tamalgarria da. Izan ere, lekua barrengorriak hazteko erabili izan da denbora luzean. Lan bereziak behar dituen bertze tarte Arkijasko zubisikua da, bertan baranda egoki bat ipini behar baita.

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Asier Azpilikueta

Miliar bat zentima euskararentzat

Miliar bat zentima Hendaia euskararentzat izenburuko artikulua jasotzen du Herria astekariko azken zenbakiak, eta azken 20 urteotako euskararen aldeko ibilbideari erreparatzen dio: «Hendaia herriak tiratu ditu luzaz muga herri egoeraren ttanttoak: mugari johan zen biziak aintz familia berri erakarri ditu Hendaian bizitzera. 93ko europar batasun ekonomikoak iturri parte bat geldiarazi badu ere urtean enpresa berri bat bederen finkatzen da Hendaian bereziki hegoaldeko jink; bestalde kondatzen dute 2.000 hegoaldeko bizi dela Hendaian gaur egun».

«Kanpotik sartu diren kategoria horietan

euskaldun arras guti da. Errecart eta Lassallette auzapezak laster ohartu dira euskara gero eta arrotzago izanen dela Hendaian, gauzak ziren bezala utziz. Gainera herriko euskaltzaleek (Ikastola, Haize Garbia, Gau eskolak) dinamika gaitza ekarri dute. Auzapeza eta kontseiluak buxetaren % 1 berexen diote euskarari 1985az geroztik. Sozialistak eta komunixtak elgarrekin dira herriko kontseiluan 1975az geroztik jada eta 83an tartera sratuak zaizkie aberzaleak, Lassallette hitzemaitearekin buxetaren % 1 emanen zitzaiola euskarari. Hitzemaite hori indarrean emana da 1985az geroztik».

«Diruzama horiek metatzen baditugu 1980az geroztik heltzen gara beraz 10 milioi liberetara, hots miliar bat zentimetara. Miliar zentima hori nola banatu den? Kasik hiru laurdenak joan dira Seaskarentzat: ikastola berria lau milioi eta erdi gostaia da; bizitzeko urteroko emana izan zaion laguntza metatuz heltzen gara 2,3 milioi liberetara ikastolen federakuntzarentzat; ez da ahantzi behar bestalde Hendaia Xalbador koleioari ekarri diola 400.000 libera bost urte hauetan. Laguntzaren azken parte larriena joan zaio helduen erakuntzari».



Xabier Larraburu

Udazkeneko dibulgazioaz

Bera zuhaitzetaz luze mintzatu zen. Ia ia etenik egin gabe hostoen erorketaz tesina oso bat bota zizun. Funtsean zuhaitzek migratzeko duten modu bakarra dela zioen.

«Ez dute ez hankik ez hegalkik mugitzeko badakizu? Lotan daudela lekuz aldatzen dira. Negu beldurgarria datorrelarik hanka egiten dute.»

Eskua zurzuri baten gainean paratu eta agur esan zion. Uda-berrira arte. Hunkigarria zinez. Adiskide zientifiko-poeta bat edukitzearen abantailak dira hauek. Harritxo bat hartu eta izarretaz mintzo dira. Zuk, gogogabeki, zanpatzen duzun orbelarekin espektakulo bat egiteko ahalmena dute. *Foton* edo *Proton* hitzak baliatuz buruan eta bihotzean kolpatzeko gaitasuna ere badute.

Zuk Magdalenako baratzen gainetik zebilen itzalari seinalatu galdetu zenion. Kriston hotza egiten zuen eta lurruna atera zitzaizun hitzegiterakoan.

«Eta miru beltzek ez al dute migratzen neguan?»

Eta orduan zure adiskideak zerura keinu bat eginez.

«Bai, herriz aldatzen dute.»

Honako hau hotzari aurre egiten dion tipo ausarta bat eman dezake bainan ez da horrela, egia esan nahiz eta hor ikusi dagoeneko lekuz aldatu da, migratu du. Udan Iruñean ikusi ahal izan ditugunak Afrikara joan dira jada. Eta Alemaniatik etortzen direnekin ordezkatuak izaten dira. Horrela urteko sasoi guztietan ikus ditzazkegu miruak Iruñean. Bainan ez dira berberak. Nazionalitate bikoitza dutela ere esan genezake. Zuhaitzen bigarren nazionalitate lokartu hortaz ez galdetu ordea. Mixterioa da.

Telebistan agertzen diren dokumental baten traza guztiak hartuak zituen paseok. Eguzkiaren ekarpena Etxauri aldetik paratutako susko ilunabar fotogeniko bat zen. Tontoa ez ematearren zuk ere zer edo zer gehitu nahi izan zenuen.

«Hau zer da, nafarra edo alemaniarra?»

«Hau, oraintxe, nafarra dela esan dezakegu. Dena dena udan alemana da.»

Zerurantz begira, irribartsu, miru beltzari.

«Gute Nacht!»-esan zenion. Eta zure irudimenean dokumentalaren kredituak agertzen hasi zirenean tabernara jo zenuen ardo bat edatera. The End.

Artea txotxongilo bilakatzen denean


Barañainen egiten ari diren IV. Txontxongilo Jaialdian, antzerkia ez ezik, artearen magia bizitzeko aukera ere izaten ari dira haurrak

Barañaingo IV. Txotxongilo Jaialdian ikastetxeetako haurrak dira protagonista, egitarauan agertzen diren emandiez gain, artea eta txotxongiloen antzerkia uztartuz, Picassoren lanak bildu dituen museo bilakatu da kultura etxea egunotan.

Lasterka eta harrotuak joan ziren asteartean Barañaingo Kultura Etxera, eta kolorez jositako zaldiaren zurdari eutsirik ziztu bizian itzuli ziren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Alaitz Institutura bertako D ereduako 90 ikasleak. Eurek bezala, beste 2.810 haurrek ere txotxongiloen munduaren bidez arte garaikidearen bidea ezagutzen hasteko aukera izan dute egunotan Madrilgo Teatro La Luna konpainiak Nafarroara ekarri duen esperientzia berria. Barañaingo Kultura Etxeak eta Euskara Zerbitzuak elkarlanean antolatuta, La Luna konpainiak txotxongilo bi ikuskizun ekartzeaz gain, haurrei arte garaikidea hurbiltzeko duela lau urte Madrilgo Reina Sofia museoan abiatutako esperientzia aitzindaria ekarri du Barañainera. Hala, kultura etxea artearen magia irakasteko tailerra bilakatu da egunotan. «Saiatu gara museoan egiten duguna hona ekartzen. Hemen, museo batean egon ez arren, estreinako gonbidapen hori egin zitekeen. Artis-ta bat pausoz pauso ezagutzeko aukera», dio Eulalia Domingo Teatro La Luna-ko kideak, haurrei so dagoen bitartean. Hemen ere, Madrilan, Britainian, Alemanian edota Belgikan erabilitako egiturari jarraitu diote. Kultura Etxetik Pablo Picassoren artearen erakusle den zaldiaekin ateratzen badira ere,

Eulalia Domingo:

«Oso interesgarria iruditzen zitzaigun beste komunitate batekin eta beste haur batzuekin aritzea, beste ahots batek hitz egin dezakeelako gure izenean».



artea ezagutzeko egiten duten bidea ordu bat lehenago hasten da. artistaren inguruko diapositiba emandiarekin. Tailerren ideia modu orokorrean landu dutenez, artera hurbiltzeko bide eta proposamen ezberdinak aurkitzen saiatu dira.

Haurraren partehartzea bultzatu

Kreatzaile bilakatu baino lehen haurrak Picassoren lana bi modutan ezagutuko du. La Luna taldea 30 haurrekin lan egiten ohitua badago ere, bi txandatan banatutako 90 umeko taldeekin aritu da egunotan. Tailerlean *Gernika*, *Pintorea eta modeloa* eta *Gizona arkumearekin* lanen diapositibak ikusi zituzten haurrek. «Obrak beste modu baten ezagutu behar ditu, modu erakargarrian. Haurrak parte hartu egin behar du, nirekin begiratu eta zer ikusten duen atzema-tzen saiatu behar du», dio Domingok. Haurra arte garaikidearen ulermenean

hasi eta motibatu nahirik, murgilketaren bigarren zatia artistaren lanak beste dimentsio batean ikusteko aukera izanen dute. Kultura Etxeko beheko gelan txotxongiloentzako egokitutako antzetzokia ageri da. Ilaretan jarritako aukietan eseri eta *Gernika* laneko pertsonaiak bizia hartzen dute. Zortzi metro zabal eta hiru eta erdi altu den oihalean ager-

tzen den zaldi zaurituak, haur hil berria besoetan duten emakumeak eta bonben bat-batekotasunak sortutako kaosa tartekatzen da txuraren doinu barnerakofaren eta merkatu egun arrunt batean sor daitezkeen soinuekin. «Obrara hurbilketa egin nahi izan da, baina ez datu edota eskuliburuen bidez. Koadroa aurrez aurre ikusteak harritzen du gehien haurra. Haren tamainak, formak eta koloreak ikusten ditu, eta beraiekin ikertzen eta galderak sortarazten saiatu gara», gaineratu du La Luna Teatrako kideak.

Haurrak artista ezagutzeko balla-bideak ulertu ditu, kopistak ez, bazik eta asmatzaileak direla, forma eta kolore ikertzaile bikainak direla bizitu du.

Artista frankok uztartu dute txotxongiloa eta artea. Askok islatu dute beren eginkizun artistikoa eszenatoki batean. «Oso interesgarria iruditzen zitzaigun txotxongilo antzerkiko hizkuntzarekin egitea, batez ere museora lehenengoz etortzen direnentzako. Kontatzeko eta motibazioa lantzeko beste modu bat delako antzerkigintza», azpimarratu du tailerreko arduradunak. Behin artista

Espazio berriak aurkituz

La Luna Madrilgo antzerki taldea 1991ko udaberrian sortu zen. Geroztik zazpi muntaiak egin dituzte. Duela lau urte hasi ziren Reina Sofia museoan haur tailerrak egiten. Geroztik, Barañainera ekarri dutenez gain, beste hiru dituzte eginak: *Txorien ibilbidea*, *Koadro baten doinuak* eta *Haize-orratzen bidaia*. «Haurrentzako txotxongilo ikuskizunak kalitate eta zuhurtasunez egiteko eta arte plastikoetan espazio berriak aurkitzeko helburuarekin», diote-nez. Baina tailerrak ez ezik, bestelako txotxongilo muntaiak ere egin dituzte aurkikuntza horretan. 1991n *Sueños de arena* muntaiak kolektiboarekin hasi zuten ibilbidea. *Historias de frailes* helduentzako muntaiak

Hek txotxongiloen mundua eta arte garaikidearen beste modu bat ezagutu behar dute.

MIRIAIZ

ezagutzeko proba errealitate bihurtuta, haurra bera sortzaile bilakatuko da. Kasu honetan egurrez egindako zaldi baten burua pintatzea eta jantzea izango da hurrengo pausoa. Animalia-aren zurda kolorezko biloz beteko du, kreatzen ere badakielako frogatuz. Prozesu hori gutzia, hezteko eta sentimenduak transmititzeko modua ere badela uste dute antolatzaileek. Hain adin txikiekin lan egitean gehiena sentimendua eta emozioa bada

ere, artean hezteko beste modu bat ere badela diote. «Emozioaz gain, haurrak aurkitu egiten du. Beraiek berriro arte-lanera hurbilduko dira bere espazioa aurkitzeko. Museoek ez dute izan behar bakarrik zaindari eta kamera asko dau-duten etxe handiak, non deus ezin daitekeen ukitu, museoetan dauden koadroetan ere espazio bat egon behar du haurrarentzako».

Bi ikuskizun txotxongiloak bizitzeko

Baina haurrei arte garaikidea azaldu ez ezik, txotxongiloen mundua gerturatzeko ere badu helburu Barañaingo Jaialdiak. Behin tailerrak bukatuta, taldeak bi ikuskizun erakutsiko ditu: *Elmer elefantea* eta *Loreen errege txikia*. Lehena David McKeeren ipuinan oinarrituta da, eta kolorez jositako elefanteak bera bezalako besteren bat aurkitzeko taldetik aldentu eta egiten duen bidaia kontatzen du.

Loreen errege txikia, berriz, Kveta Pacovska idazle txekiarren lana da. Maiz idazlearen bere espazioak ipuinean tolestuak diren arren, amodiozko istorio bat plazaratu da lanean. Sagarrak ematen dituzten jauregiak eta etxeak diren tulipak agertzen diren narrazioan printzearen eta



Eulalia Domingo:

«Obrak beste modu baten ezagutu behar ditu, modu erakargarrian. Haurrak parte hartu egin behar du, nirekin begiratu eta zer ikusten duen atzematzen saiatu behar du».

«Oso interesgarria iruditzen zitzaigun txotxongilo antzerkiko hizkuntzarekin egitea, batez ere museora lehenengoz etortzen direnentzako. Kontatzeko eta motibazioa lantzeko beste modu bat delako antzerkigintza».

printzearen arteko amodio istorioa kontatu da. Bi istorio horiek ere espazio kultural ezberdinak jarri nahi dituzte harremanetan. Hala, Elmer ikus-terera joaten diren haurrek etxera elefante koloreduna eta olerki bat emanen dute. Azkeneko aukera gaur —hiru saiotan— eta bihar —bakarrean— izanen dute. Elmerren lekukoa *Loreen errege txikia* hartuko du. Etzi eta datorren astean izanen diren ikuskizunetan euskaraz zein gaztelaniazko saioak eskainiko dira. Esparru kultural ezberdinak —antzoki, liburutegi, museo— komunikatu nahirik, tulipa lore-errabollak oparitutako zalkie haurrei. «Konturatu ginen printzeari gehien gustatzen zitzaiena loreak landatzea zela, eta antzerkia, liburua eta lorategia uztartzea lortu dugu». Opariarekin lortu nahi da ipuinaren eta bizitzaren arteko analogia. «Pertsonaia tulipa hazten den heinean handituz doa. Haurrek landatuko dute lore-errabolla herriko Konstituzio enparantzan eta udaberrian jarraituko dute izaten orotzapan txiki hori. Pertsonaiak printze-sa aurkitzen duen moduan, haurrak beste bizi bat topatuko du, tuliparena», dio La Lunako kideak. Helburua, kasu horretan, ez da balio batzuk irakastea, baizik eta antzerki esperientzia bat izatea. «Antzerkia antzerkia da. Eta bizitza bizitza da. Horrekin gutziarekin he-ziz zoaz. Istorio bat kontatzen den esperientzia bat da», gehitu du.

Baina txotxongiloen bidez esperientziak eta artea islatze lanean, hizkuntzaren arloa ere jorratu behar izan du Barañaingo Jaialdian. Hizkuntza Politikako Itzulpen Atalarekin elkarlanean antzezlanean gidolaki itzuli behar izan baitituzte. Horrelako lanik ez dago euskaraz, eta tailerreko gidolaki zein antzezlanean gidolaki itzuli egin behar izan dira. Taldeak bazuen esperientzia beste herrialde batzuetan egindako lane-kin. «Oso interesgarria iruditzen zitzai-gun beste komunitate batekin eta beste haur batzuekin aritzea, beste ahots batek hitz egin dezakeelako gure izenean», diote La Lunakoek. Lehenengo proposamena beste talde batek gure obrekin lan egitea bazen ere, azkenean Gus Marionetas euskal taldeak grabatu du Hizkuntza Politikak itzulitako bi ipuinon euskarazko bertsiola.

Britainian bretoiak eta Belgikan flandrierak, gaztelaniarekin tartekatuz, lanean arituak baziren ere, euskara hutsean egin duten lehenengo aldia da.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Paulin Solozabal olerkariaz

Sei dira Paulin Solozabal etxebarrirak utzi dizkigun poema liburuak 1961 eta 1977 urte bitartean, eta seiak Santi Onaindiaren sarrera oparoz horniturik argitaratu baziren ere, nahikoa oharkabean igaro zaizkiguke gurean «Udabarriz lore-pitxiak txairo. Orrela ditugu Solozabalen kantagaiak ere, lau, arrunt eta errezak. Artezi ta lanketa geiegi bakoak, arin-errezak. Olerkari aspergatxa dogu iñondik-iñora».



LEHENGO BATEAN TUTERA karrikako liburudenda ezagun batean nintzela, Iruñean, euskal liburuak akuitlatzen dituen abaroan begiak pasiarazten nituela, *Erri arnasa* izenburuko liburuxka zaharrea jo nuen begiz: Solozabal'tar Paulin, autoedizioa, «*bea diran baimenakaz*» baina -zer gerta ere-, poesia liburua. Nor ote nuen, baina, olerkari bizkaitar hura?

Paulin Solozabal eta Solozabal Markina ondoko Etxebarrian sortu zitzaigun 1912.eko maiatzaren 4an. Apezbidean, Durangoko josulagunen ikastetxean sartu zen 1925.ean. Handik bi urtetara Arratiko Gaztelu-Elexabeitiara joan zen, eta 1929.ean, jada, Gasteizko apezgaitegian sartu zen teologia ikasketak burutzeko xedez. Hantxe, apez txiek ateratzen zuten euskal aldizkarian hasi zen gure Paulin bere lehenbiziko olerkiak azaleratzen, baita estrainekoz bere ezizen literarioa erabiltzen, Egieder alegia. Haatik, ikas bidaztia amaitzeke, 36.eko gerratea heldu zitzaion Paulini, gogoz kontra soldadu eroan zuen berbera: «*Ondamendi bakarra / Etsai gogorrrak egin zun / Gernika barruan / Arririk ez egoan / Lengo arri gañean / Gernika osuan*».

1939.eko uztailaren 2an apezte zuen Bergaran, eta meza berria sorterrian bertan emanik, Arabako erretabait herritan aritu zen erretore -Basaben, Azebedon,

Mioman eta Pinedon hain zuzen- harik eta 1942.ean Mungiauko Laukarizera buruz jo zuen arte: «*Euskalerriko aritz artean / Zakudaz ernai Laukariz / Bizkaitako lurrean erroturik / Menditur garden ugariz*».

Olerkari ihardun zuen gutxiz gehien, atera sei liburuak aski argi adierazi bezala. Poemategi guztiak Bilbon argitaratu zituen, eta guztietan ezarri zituen

1962.ekoa dugu, *Urre-bitsa*. Hirugarrena, berriz, 1969.ekoa, *Gizonetan*. Azken honetan, gizarte gaietan kezkatu xamar dabilen Solozabal bat atzeman daiteke, Onaindiaren hitzetan, «*gaurko gizarte arazoetan sarturik, gizon bila ibilia dogu; gizona ordea, jausia ta porrot egiña ikusten dau, duintasun barik; ezta goizale, lur-zale baño, biotza maitasun-abi barik, gorroto-abi dau, eta olerkariak ezin dau ori ikusi*».

Gizadian 1972.ean karrikaratu zen, erdia prosaz eta beste erdia olerki moduan tajaturik. 1974.ean 204 poema biltzen dituen *Deika* eskaini zigun, eta, ahi-tzeko, 1977.ean aipatu *Erri arnasa*. Artezak dira




Santi Onaindiaren hitzak aitaponteko. 1961.ean agertu zen lehenbiziko lana, *Uskeriak* izenburupean; lau salletan banaturik, «*Begien dardar*», «*Barrua miñez*», «*Jainko kezkaz*», eta «*Inguru minguru*», 168 orriotan barrena 146 olerki lan biltzen dira: «*Olerkari txit bizkor / Gau odeitsu ilunean / Oñestarriz ditzikor / Erriak lo ameskor / Olerkari kantari / Goizeko uretxandor / Gogor motel garaian / Olerkiaren gatzak / Min erri biotzean / Oi olerkari sutsu / Zure urre gogoan / Maitasunak loratsu*».

Bigarren olerkitagia

Solozabalen kezka-iturriak, lauak; olerki soziala deituriko ildoan barrena abiaturik, apez zamak ertsiki estekatu zion hegaldia, eta olerkari gisa kamustu: «*Oldoztu ta oldoztu ari naz / Artega daukat bizitza / Barruko kezka negargarriak / Lertu nai dauste biotza*». Eta oroz gainera, euskera zaio mingarri, kezka-iturri nagusi, nahiz borroka horretan bakarrik ez dagoela sobera jakin: «*Ikuntzak ditun erpin oianak / Arkaitzak eta mami-nak / Ibaiak eta itxaso zabalak / Ezagutzen Onaindiak*».

etorri ahalean

Patziiku Perurena



Inzaur duenak jateko, aurkit diro harri hausteko

PIKOAREKIN BATERA, intxaurra da, gizonak apropos erein eta zainduz etxe-kotu duen aurrenetako frutabola. Mundu zabaleko kultura guztietan ageri da intxaurra, eta Pertsiatik ekarria izan bazen ere, ederki asko errotu zen euskal lurrean eta gogoan ere; lekuizentetan eta jendakien deituetan gelditu zaigun altxorak erakusten du ederki: *Intxaurrondo, Intxauspe, Intxautsi, Intxaurraga, Intxaurreta, Intxaurburu, Intxaurgarai...*

Miquel Intxaurrondok, *La glesia y el euskera* izeneko lana argitaratu zuen 1926 aldean, eta hartaz mintzo delarik, hona zer zioen Leon Leonek: «*Lan horri ari nintzelarik eta egile jakintsunaren izenak berak hortaratzen nituela, kasko choko batean gogotatzen bat kilikan ari zautan: naukan, zuhaitzetan ez bada handiena ere, intxaurra dela guztietan baliosena; ondoak zer zura duen mahaisturiek dakite nik baino hobeki; fruituetarik, pherdeak direnean oraino, zer edari gochoa ez dute jaltzen gure etchekandrek; ontu-eta zer gauzak ogi puska batekin, daukaten olloari esker, barnearentzat zer janari azkarra; achala eta ostoa ere ez dira gal-hauk sendagailu eta achala tindu egiteko baliatzen direnaz geroz*».

Bai segur, Inchaurren jaurri bere izenaren betheko gizona da».

Zeinen pasarte polita, izana eta izena elkari nola lotzen diren ikusteko? Hara zer esaten zuen 1958an Aramako erretore zen Don Izozentzio Munitak *Gure mendit ta oianak* izeneko liburuarren 51 orrian:

«*Arriarango intxaurra. Beasaingo etxadi polit orren izena entzutea naikoa, bertako intxaurra gogoratzeke. Ain sonatua zan intzaur ori, 1932.ko Urtezar egunean, elurra zala, bota omen zuten. Bere gerria inguruz lau metro ta irurigel zentimetro omen zan. Eibar-era saldu omen zuten eskopeta kulatak egiteko, ta amairu metro ta seireun ta irurogei zenti-*

metro kubiko eman zituen bere zurak.

Aletan amazpi anega eman izandu omen zituan. Ematen zuan itzalaren zabalera, alde batetik amabi metro ba omen zan; ta bestetik ogeta sei metro. Udara aldian jende asko joaten emen zan bazkari aundia egiñaz aren azpian egotera, eta ostoz jantzia zegoenean, euri erasorik aundie-nean ere, teillatu baten antzera, azpia legor gordetzen omen zuan».

Erromatarrek, intxaur aleari, giza buruaren tankera hartzen omen zitoten. Gainera azal berdaska iluna: kalpar; azal gogorra berriz: kaskezur; eta gero, barrerango intxaur mamiak: gure buru-muinen bi erdikak. Analogia zaharreko siniste hori zela medio, buruko gaitz guziak sendatzeko intxaurra erabiliko zizuten erromatarrek.

Gure etxean, atariko koska gainean izaten ziren intxaurrondo koskor batzuk, aitzak Artikutatik ekarri eta aldatuak. Behin, Benaibordako behi beltza etorri, eta lepoa goiti okertuz gure besoa haina luzeko mingaintzara atereaz, han hasi zen intxaur hostoak jaten. Behia hala ikusi bezain pronto, amona Genobeba erdilasterka han etorri zen hankutsik, soroa behera, armonian: «*Bial tzute bei ori ortik! Ez al tzute kusten intxaur yaten ai dela!*». Amona bere behi beltza arbazta batekin adeboiloan hartuta joan zenean, amak argitu zidan misteroa: «*Beiak gaizkittu itten baita intxaur ostoa yanta; ta esne txarra ematten*». Gero, intxaurrondo haletakoren baten itzalean etzanez gero ere, abudo esaten zigun: «*Alta itxtatze ortik! Ez al dakizte burukomiña itten dula intxaurran itzalak!*?».

Beste batzutan, intxaur jaten ari ginela, alea kraskatu ondoren barrerango mamia belztu edo urdinkatua agertzen bazen, hala esanen ziguten gurasoek: «*Ori sorgiñak pixa inta beztua duk; ori ez yan!*». Beste horrenbeste esan dezakezu zuk, ale hau kraskatu ondoan.

Ziria

• Motxorrosolo •

Ardura maiz


ERREKARA BOTA HOGEI URTEKO LANA. ERRAZKERIA DISKURTSU MAILARA igo. Kontraesanaren erresuma erraz zabaltzen den olioaren antzekoa da. Mami gehiegi azken hogeiturotan, edonor asetzeko modukoa. Ardurak hartzeko garaia heldu omen zaie. Hartu baino lehen, ardura, kritikatuak izan dira, ez da seinale txarra.

Dolores Ullate

Kazetaria

«Senidetzeek ez dute funtzionatu»

Dolores Ullate kazetariak Europar identitatea lortzeko baliabideak ikerketa egin berri du. Nafarroa Garaiko 1.000 biztanle baino gehiagoko herriek beste herrialdeetakoekin egiten dituzten senidetzeak aztertu ditu Ullatek. Kazetariaren ustez, senidetzeak, funtzionatzen ez badute ere, onak dira europarren arteko batasuna lortzeko.



MIKEL SAIZ

EUROPAKO BATASUNAREN ALDE asko mintzatu da, eta mugen aurka ere agertu da. Dela dela, historiaren nondik norakoak eta mugak ez ditu hain argi kazetariak.

■ **Europar identitatea lortzeko baliabideak ikerketa egin duz. Nola hasi zenuen lana?**

Europako Batasunari buruz teoria asko dago, baina ez zegoen Europako identitatea sortzeko ez baldintzarik ez biderik lortu ahal izateko ikerketa praktikorik. Tokian tokiko erakundeekin lan eginez, Europako Batasunaren alde eta edozein nazionalismoren kontra gaudenok behar egin genezakeela ikusi nuen.

■ **Zein dira baliabide horiek?**

Bide horiek egun martxan daudenak dira: euroa, Europako banketxea, gauzatzen ari diren ingurugiro edo gizarte proiektuak, edo ekintza xumeagoak: senidetzeak eta topaketa kulturalak.

■ **Zure ikerketan senidetzea Europako Batasunaren identitatea lortzeko ona dela diozu. Zergatik?**

Aurrekontu txikiarekin bi herri harremanetan jartzen dituelako senidetzeak. Gizarte, ekonomia, kultura eta politika arloan euren arteko kolaborazioak lor daitezke eta ekintzak antolatu. Horrek lagundu lezake Batasuna osatzen duten herrialdeen arteko identifikazioa lortzen. Aintzat hartekoa da Europako Batasuneko biztanleen %50 baino gehiago europazaleak gara.

■ **Nazionalismoen aurka zaudela esan duzu. Zer ikusteko dute senidetzeek nazionalismoekin?**

Nazionalismo batzuk aztertu ditut gaineratik: Jugoslavia eta Euskal Herria. Gutxi bada ere, txikitik atzerriara bidaiatu izan nuenean mugek beldurra ematen zidaten,

soslaia

Dolores Ullate Murchanten sortu zen, duela 25 urte. Kazetaritza ikasketak Salamancan hasi bazituen ere, Nafarroako Opuseko unibertsitatean bukatu zituen. Ikasketak egiten ari zenean hasi zen nazioarteko kooperazio proiektuetan parte hartzen, beti erakarri izan dutelako historiari eta nazioarteko harremanek.

Europar identitatea lortzeko baliabideak ikerketagatik Iruñean egin berri den Europako Kulturen V. Jardunaldiko lehenengo saria jaso du. Nafarroan dauden milia biztanlez goiko 87 herrietatik 30 senidetuak daudela aztertu du kazetariak, «dextenteko kopurua», dioenez. Merkataritza Ganberak kudeatu duen lehen senidetzea Murchanteren eta Riscleren (Frantzia) artekoa izan da. Heldu den urtean emaitzak onak badira jarraituko dute zerbitzua ematen.

Merkataritza Ganberan hasi baino lehen kazetaritza ere aritua da: bi urte Tuterako COPE irrati katean, *Rivera de Navarra* aldizkarian, eta Amedoko (Errioxa) SER-en praktiketan. Orain, beste herrialdeetako kideekin maiz mintzatuko denez, bigarren hizkuntza izan duen ingelesaz gainera frantsesarekin trebatzen ari da. Dena dela, pauso batera duen euskara ikasteko asmorik ez du.

eta gaur egun bidaiatzen duzunean mugak irekiak aurkitzea zoragarria da. Mintzatzen naiz Akitaniako frantses batekin, eta gauza gehienetan antzekoak gara. Batasunaren alde egitea merezi du. Bakoitzak bere hizkuntza eta kultura gorde ditzake eta ezagutzak partekatu.

■ **Eta zer gertatzen da beren hizkuntza eta kultura garatzen uzten ez zaie Batasuneko herriekin?**

Guztiok errespetatzen badugu elkar, edonora joan gaitzake. Ez dut Espainian ez euskara ez katalana hiltzea nahi. Horrek ez du esan nahi Murchanteko haurrek ezin daitezkeenik Frantziako Riscleren herra joan frantsesa ikastera euren artean hobe-kiago komunikatzeko. Mugek irekiak behar dute, bakoitzaren hizkuntza zein politikoki funtzionatzeko modua errespetatuz.

■ **Argumentu horrekin espainiarrek eta frantziarrak ere nazionalista dira.**

Europako beste herrialdeetan bezala, espainiarren %50 baino gehiago Europako Batasunaren alde daude.

■ **Baina beren kultura, hizkuntza**

eta eskubideak errespetatzen diren heinean.

Bai. Euskal Autonomia Erkidegoak esaten du historiak dioela nafarrak baskoiak direla. Baina gero badago Nafarroako historiari buruzko hainbat idatzi, eta Nafarroako Erriberako biztanleei kostatzen zaigu euskaldunak garela sinistea, bada-

goelako aurretik beste historia bat. Espainiako historiak mende gehiago ditu eta gehiago kostatzen da Espainiako mugak desager daitzekeela pentsatzea. Euskaldunek beti historiara jotzen dute eta esaten dute nafarrak euskaldunak garela eta Euskal Herri barruan gaudela. Ezin dut ulertu ez nautelako euskal kulturari he-

zi. Lehengo egunean batek esaten zidan Euskal Herria hitza agertzen dela bere hiztegietan, baina nik ez dut ikusi inoiz hiztegi hori eta etxean ditudan hiztegietan ez dut topatu. Euskal Herriko gaian ezjakina naiz, baina ez nago biolentziaren alde. Europara eta Espainiara irekiak egon behar dugu.

■ **Ikerketan eskualdeen arteko kooperazioaren garrantzia aipatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Akitaniaren eta**

Nafarroaren arteko Kooperazio Fonda, kasu. Lankidetzarako bide onak dira edo paper hutsean geratu dira?

Gaiotan zerbitzu tekniko bat eskaintzen da edo bukatu egiten dira. Senidetzeek ez dute funtzionatzen eta erakundeekin gauza bera gertatzen da. Dena den, EAE, Nafarroa eta Akitaniaren artean badaude proiektu batzuk eta badago euren arteko identitate bat, Nafarroako Unibertsitatearen, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Aderaren artean (Pauen dagoen teknologia zentroa), kasu. Gertutasun geografikoa az gain badagoelako euren arteko identitate bat.

■ **Senidetzeek ez dutela funtzionatzen diozu. Zergatik?**

Arazoa ekonomikoa da. Senidetzea egiten den urtean diru asko gastatzen da herriko festetan eta herrien arteko joan-etorrietan, baina ez da deus planifikatzen. Urte batez senidetzea bultzatzen da, baina gero emaitzak ez direnez onak senidetzea geratu egiten da.

■ **Nola berpiztuko dira?**

Merkataritza Ganberatik senidetze zerbitzu bat eskainiko zaio senidetu nahi duen Udalari. Helburua da senidetzeak berpiztea. Elkarlanean egin ditzaketen ekintzen egitaraua egiten zaie eta aurrekontua. Ganberak Europako Batzordeari eskatuko dio dirulaguntzaren %50.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Bideo dendak eta euskara

Negozio askotan gertatu da. Egun batean batek bideo-denda zabaldu, dirua irabazi eta, handik gutxira, bideo dendarik ez zuen hirian perretxikoak bezala sortzen hasten dira. Bertze egun batean denda gehienak zeuden tokietan jatetxe mexikarrak jartzen hasten dira, ondoren dena 100 pezetatan izeneko dendak...

Nik kontrakoa uste banuen ere, bideo-dendak eta jatetxe mexikarrek badute euskararekin zerikusia. Izan ere, euskal kulturaren aurka sekulakoak botatzeak ustezko kritiko progreren bati ekarriko etekinak ikusita, lan horretan hasi dira bertze batzuk, mezua ongi aukeratuta.

Gaztetako pekatuez damutzea, erdaraz ongi idazten jakitea eta komunikabide indartsuenek entzun nahi dutena eirrepiatzea dira xedea lortzeko baldintza nagusiak. Horretan lan pixkat eginez gero, posiblea da 200.000 aletik gorako tirada duten periodikoetan elkarrizketak lortu eta, bide horretatik, kolaborazioak, hitzaldiak, telebista programa eta sariak etor litezke. Denak ongi ordainduta, jakina.

Dena den, kontuz ibili orain artekoa diru iturri izan beharrean esne-saltzaileen ipuina bezalakoa izan daitekeelako. Egia da, bai, baten batek urtetako lanaren saria lortu duela. Merkatu-legeak, ordea, gogorak dira eta negozio guztiak bezala hau ere mugatua da. Antza denez, momentuz, batekikin aski dute. Hau pena!

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Sarasate Orkestrak eta Iruñeko Orfeoak kontzertua emanen dute Done Saturdiko elizan, etzi, 11:00etan.
- **Zangoza:** Joshua Edelmanen emanaldia izanen da bihar, Carmengo Aditoremuan, 20:30etan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Datorren ostegunean *Julia* pelikula pantailaratuko da 19:45etan, Olite zinemak.

ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Heldu den abenduaren 6a arte *Comercio Justo, comercio responsable* erakusketa ikusteko aukera dago Kultur Etxean.

ANTZERKIA

- **Tafalla:** Kilkarrak taldeak *Habitación 689* taularatuko du gaur 20:30etan. Sarrerak 300 pezeta balio du.
- **Astarrabia:** Peineta taldeak *Mentiras* lana taularatuko du gaur, 20:00etan, La Presentacion ikastetxean.
- **Iruñea:** Trokolo taldeak *Mis mitos* lana oholztaratu du gaur, bihar eta etzi, NAE. Gaurko emanaldia 20:00etan izanen da, eta gainontzeko biak 20:30etan.
- **Berriozar:** Tenpomobile taldeak *Bihotzaren hegoak* ikuskizuna taularatuko du etzi, Kultur Etxean, 19:00etan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Alde Zaharreko auzo elkarteak hiriaren alde horren inguruko argazki rallya antolatu du biharko. Ekitaldia 11:00etatik 13:00ak bitarte izanen da. Informazio gehiago lor daiteke 21-25-26 telefonoan.

- **Iruñea:** Julio Bazterretxearen *Alto Amazonas* diapositiba emanaldia izanen da etzidamu Alde Zaharreko Elkartearen egoitzan, 20:00etan. Asteartean, berriz, lekukoa Xabier Goñik hartuko dio. *El camino real Inca, 3.000 km a través de los Andes* aurkeztuko du Aitzina tabernan, 20:00etan.
- **Uhartea:** Bihar herri meza izango da 18:00etan, herriko San Joan Ebanjelari parrokiari. Mezan, Andre Mari Zuria

parrokiako abesbatzak, Ardanbera fanfarreak, dantzariak eta bertsolariak hartuko dute parte, euskal kulturaren ezaugarriak toki eman nahi zaielako.

- **Erratzu:** Bertso afaria eginen da bihar. Bertsoan ariko dira Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.
- **Iruñea:** Juan Garzia idazleak *Euskararen umoreak* hitzaldia eskainiko du datorren asteartean, hilak 24, Erraldoien Txokoan, 20:00etan.
- **Iruñea:** Gaztediaren Etxeak bi

mintegi antolatu ditu: bata, ikasten ikasteko, eta, bestea, kutxatila egiteko. Biak abenduaren 14an hasiko dira eta 23a arte iraunen, eta euskaraz zein gaztelaniaz irakatsiko dira. Izena emateko epea abenduaren 9an bukatuko da. Informazioa jaso eta izena eman Zangoza kaleko 30ean egin daiteke.

- **Iruñea:** Pello Lizarralde *Un ange passe* liburuaz mintzatu da NUPen egoitza nagusiko 106 gelan, datorren ostegunean, 18:00etan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Toreroek, jubilatzean, kortijo bat erosten ohi dute. Pilotariak, jatetxe bat. Eta zer ote bertsolari batek?



ELUR-ZAFLA
AZPIKO ARROPA

Zeren zahartzarpan katarroekin ezin baita inprobisatu.